

PRENTSA OHARRA

Prensa-oharra Derioko Seminarioan gertatutako abusuen kasuei buruz

Bilboko Gotzaitegiak zera adierazoten dau:

1. Barri honeek ez dira oraingoak. Astintze alkarteak Bilboko Eleizbarrutiaren laguntzagaz argitaratu eban Derioko Seminarioari buruzko liburuan Javier Elzo soziologoak 2011n jasotako lekukotasunetan oinarritzen da.

2. 2017an, On Mario Izeta gotzainak eskatuta, Jarduera Onen Gidaliburua Adin Txikikoen aurkako Sexu-abusuaren Prebentzinoan argitaratu zan eta, lege-eskakizunak betez, adin txikikoakaz jarduten daben personei ziurtagiri penalak eskatzeari ekin jakon.

3. Testuinguru honetan, urte horretan bertan, **barne ikerketa jarri zan martxan, 1950ean Bilboko Eleizbarrutia sortu zanetik eleizbarrutiko abaderen batek** -1.600 inguru dira euren ministerioa garatu daben abadeak- egindako abusuzko kasuren bat egoan jakiteko.

4. Kuriako artxiboetan **adin txikikoen aurkako abusuen inguruan eleizbarrutiko abadeen kontrako salaketarik ez egoala egiaztatu ondoren,** aurreko aldietan Eleizbarrutian gobernu-erantzukizunak izan ebezan abadeei gai honen inguruan galdetu jaken.

5. Ikerketa honen ondorioz, **hiru abade identifikatu ziran,** ikutzeak egin ebezala-eta. **Guztiak dagoz hilda** eta horreetako bat da gaur argitaratutako barrian ezagutzera emon dana.

6. Bilboko Eleizbarrutiak **gardentasunez jokatuko dau** gizartearen aurrean gai honeen inguruan. Era berean, gaitzetsi egiten dau, beste behin be, **personen sexu-askatasunaren aurkako edozein jokaera eta uneoro herri agintariakaz lankidetzan jarduteko prestasuna berresten dau,** beti be kaltetutako guztiei eta euren familiei laguntasuna emonez eta Lagungo eleizbarrutiko fundazinoko profesionalen jardutea eta laguntza euren esanetara jarriz.

